

Zer helburu dute laguntzek?

Jaiotzagatik, adopzioagatik, tutoretzagatik edo adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatik seme-alabak dauzkaten familiei laguntzea.

Nolako laguntzak dira?

Laguntza ekonomikoak dira, hilekoak, eta bi mota daude:

- **200 euro hilean seme-alaba bakoitzarengatik**, 3 urte bete arte
- **100 euro hilean hirugarren edo ondorengo seme-alaben kasuan**, 3 urtetik 7 urtera.

Alabak edo semeak % 33ko edo hortik gorako desgaitasunen bat edo mendekotasun-egoera aitortuta badu, zenbatekoak bikoiztu egingo dira. Gainera, ordainketa bakarreko **laguntza berezi bat dago erditze anizkoitzetarako, adopzio nazional anizkoitzetarako eta nazioarteko adopzioetarako.**

Eskaerak egiteko epea

Laguntza osoa kobratu ahal izateko, **eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da**, jaio eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita edo, adopzioen nahiz tutoretzen kasuan, semea edo alaba inskribatzen den egunetik zenbatzen hasita; adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatik, berriz, administrazio-ebazpena eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen epea.

Informazio
gehiago

945 062 040

umeak@euskadi.eus

www.euskadi.eus/
hilekolaguntzak



Nola eskatzen dira?

Eskaera eta beharrezko dokumentuak aurkezteko bi aukera daude:

1 TELEMATIKOKI

Online identifikatzeko bitartekoren bat baduzu (NAN elektronikoa, Izenperen herritarren ziurtagiria edo ziurtagiri profesionala, BAKQ ziurtagiria, FNMTren pertsona fisikoen ziurtagiria...), honako URL honetan eska ditzakezu laguntzak:

www.euskadi.eus/hilekolaguntzak

Bertan, eskuragarri dagoen informazio guztia aurkituko duzu.

2 AURREZ AURRE

Modalitate honen alde egiten baduzu, eskaera hainbat tokitan aurkeztu ahalko duzu:

- **ZUZENEAN** - Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan
 - Gasteizen, Ramiro Maeztu kaleko 10. zenbakian (behea)
 - Bilbon, Kale Nagusiko 85. zenbakian
 - Donostian, Andia kaleko 13. zenbakian

Aurretiko hitzordua online:
edo telefonoz: **945 01 90 00**
eska dezakezu.

- Udaletxeetan
- Posta bulegoetan

2023an, salbuespenez, laguntzen eskaerak urriaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira, eta atzeraeraginezko ondorioak izango dituzte.



Seme-alabak dituzten familientzako hileko laguntza berriak



0-3 urte bitarteko seme-alabengatik

200 €
/hilean

3-7 urte bitarteko hirugarren edota ondorengo seme-alabengatik

100 €
/hilean

